

## **Lazarraga Sarien zazpigarren edizioak esparru sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzen duten enpresak sarituko ditu**

*Hautagaitzak aurkezteko epea urriaren 24ra arte egongo da zabalik*

**Gasteiz, 2022ko irailak 22.** Arabako Foru Aldundiak eta Bai Euskarari Elkarteak Arabako eremu sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko lana saritzea helburu duen Lazarraga Sarien zazpigarren edizioa aurkeztu dute gaur.

Euskara eta Gobernu Irekiaren foru zuzendari Lexuri Ugartek eta Bai Euskarari elkarteko zuzendari Robert Gutierrezek balioa eman diote erakunde askok euskara egunerokoan txertatzeko egiten duten lanari, eta, gainera, sail ezberdinen bitartez tresna transbertsal eta sozializatzaile bihurtzeko egiten duten esfortzuari. Ahalegin hori aitortu eta saritzeko, bost sari emango zaizkie Arabako Lurralde Historikoko erakunde edo pertsona fisikoei, gizartean eta enpresetan euskararen erabilera sustatzeko egindako lanagatik eta ekimenengatik.

Aintzatespen hauek Lanabes-Araban Euskara Lanean ekimenaren parte dira, Arabako enpresa munduan euskararen erabilera zabaldu nahi duen ekimenarenak, alegia.

*“Erakunde gisa, Arabako erakunde eta enpresak sustatu, lagundu, aholkatu eta saritzea bilatzen duten ekimen eta proiektuak bultzatzen eta babesten inplikaturata gaude, gero eta gehiago baitira, negozioak dituzten pertsonen zerbitzu hobek eskaintzeko euskara egunerokoan sartzea ezinbestekoa ikusten dutenak”* adierazi du Euskara eta Gobernu Irekiaren foru zuzendari Lexuri Ugartek. Zuzendariak gainera, Arabako Foru Aldundiak euskara sustatzea zeharkako estrategia nagusietako bat izaten jarraituko duela gogorarazi du.

*“Foru Aldundiak lan munduan euskara txertatzeko lanean jarraituko du, SEA eta Vital Fundazioaren lankidetzarekin. Bestalde, kirol arloan euskara sustatzeko proiektu txikiak eskaintzen hasi gara. Era berean, inoiz baino beharrezkoagoa ikusten dugu Araban orain arte landu ez diren esparruetan eragitea, hau da, IKTen munduan, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan, euskara sartzea”,* gaineratu du Ugartek.

Rober Gutierrezek azpimarratu duenez, Bai Euskarari Elkarteak, Lazarraga Sariak proiektuarekin, *“Arabak gizarte aurreratua, modernoa eta euskaraz bizi eta lan egingo duena izatea”* lortu nahi du. *“Lanean jarraituko dugu errealitate bat izan dadin”*, amaitu du.

Euskaraz idazteko orduan aitzindari izandako Juan Pérez Lazarragaren sariekin Arabako esparru sozioekonomikoan aintzatetsitako enpresa eta erakundeen sare bat ehundu nahi da.

Sariak azaroaren 24an banatuko dira Gasteizko Artium Museoan, eta mundu sozioekonomikoan egiten den lan hori lehenestea eta, batez ere, aitortzea dute helburu.

### **Sariak**

Bost sari banatuko zaizkie erakundeei eta pertsona fisikoei, eta hauek izango dira epaimahaiak kontuan hartuko dituen aldagaiak:

- Zerbitzua euskaraz eskaintzeko eta lana euskaraz egiteko neurriak.
- Lana euskaraz egiteko baliabideak.
- Kontratazioa
- Barne-dokumentazioa.
- Hizkuntzaren ingurunea.
- Kanpo-komunikazioa.
- Produktuaren kontsumitzailea eta erabiltzailearentzako elementuak.
- Lanbide Heziketako euskarazko praktikak enpresetan.
- Euskaraz egindako prestakuntza.
- Lanean euskara ikasteko prestakuntza.
- Arlo sozioekonomikoan euskara sustatzeko egindako beste edozein neurri.

Hautagaitzak pertsona fisikoek zein erakundeek aurkez ditzakete. Hautagai gisa aurkezteko baldintza bakarra Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean egoitza izatea da. Proposamen horretan, emandako informazioa eta zioen azalpena hartuko dira kontuan, eta edozein euskarri erabili ahal izango da erakundearen edo pertsonaren ekintzak erakusteko.

Hautagaitzak aurkezteko epea urriaren 24ra arte egongo da zabalik, eta proposamenak egiteko hainbat bide egongo dira:

- Helbide honetan aurkituko duzuen formularioaren bidez:  
<https://baieuskarari.eus/eu/proiektuak/lazarraga-sariak>

- E-mailez, helbide honetara idatzita: [lazarragasariak@baieuskarari.eus](mailto:lazarragasariak@baieuskarari.eus)

Azken izendapenak eta irabazleak erabakiko dituen epaimahaia Lanabes proiektuaren talde eragileak osatuko du.

Arrazoiak eta aurkeztutako dokumentazioa ere baloratuko dira, eta Lazarragaren eskuizkribuan oinarritutako litografia eta eskuizkribua emango zaie sarituei.